



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

2030 Estrategia

Laudioko garapen jasangarrirako
ibilbide-orri bat



2020ko otsaila



Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) ekintzarako dei unibertsala dira, pobreziari amaiera emateko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta itxaropenak hobetzeko.

2015ean, Nazio Batuetako estatu kide guztiek Garapen Jasangarrirako 17 helburu onetsi zituzten 2030 Agendaren barruan. Agenda horretan, 15 urtean helburuak lortzeko plan bat ezarri zen.


Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzailea da, gizartearen, ekonomiaren nahiz ingurumenaren alorretan eta izaera iraunkorra duen giza garapena bultzatzeko xedea du.

2015eko irailean, "Gure mundua eraldatuz: garapen jasangarrirako 2030 agenda" izenburupean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako Agenda berria onetsi zuen.

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren helburua da pobrezia desagerraraztea, planeta babestea, pertsona guztientzako oparotasuna ziurtatzea, bakea sendotzea eta justiziara iristeko eskubide unibertsala ziurtatzea. Agendak Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) eta 169 jomugatan egituratutako ekintza-plan bat du ardatz, eta adierazpen politiko batean oinarritzen da; nazioarteko komunitate osoari eta sektore nahiz eragile guztiei Agenda hau betetzeko konpromisoa hartzeko eskatzen diena, hain zuzen ere.

Laudio Udalak ezin die ezikusi egin gizarte guztientzat erronka orokor eta konplexu diren faktoreei, izan ere, pertsona guztientzat etorkizun duin eta iraunkorra ziurtatzeko oztopo larriak dira desberdintasunak areagotzea, ingurumena narriatzea, emakumeen eta gizonen arteko desorekak, garapenaren etekinen banaketa desorekatua zein klima-aldaketa.

Horrexegatik, eta duen garrantzia, anbizioa eta irismena aintzat hartuta, Laudiok Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onetsi du; pertsonen, planetaren, oparotasunaren, bakearen eta aliantzen aldeko mundu-mailako konpromisoa Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH) lortzeko. Ezinbesteko tresna da planeta osoan garapen-eredu barne-hartzaile eta jasangarri baterantz bidea ziurtatzeko, nazioarteko komunitate osoak partekatzen duen ibilbide-orri baterantz, alegia.



**2030 Agendaren
5 esferak**

Zehazki, 17 dira Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren barruan dauden helburuak:



Helburu honek jorratzen dituen alderdiek puntu hauekin ukitzen dituzte, besteak beste: muturreko pobrezia, pobrezia orokorra eta kalteberatasuna, gizarte-babesa, baliabide ekonomikoak eta oinarritzko baliabideak eskuratzeko eskubidea eta pertsona pobre eta kalteberen erresilientzia.



Helburu honek jorratzen dituen alderdiek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: gosea eta malnutrizioa desagerraraztea, elikadura osasuntsu, nutritibo eta askia, nekazaritzaren produktibitatea, nekazaritza-praktika moldakor eta sendoak, ekosistemak zaintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko ahalmena indartzeko eta abar.



Helburu hau lortzeko lantzen diren alderdiek puntu hauekin dute erlazioa, besteak beste: amen eta jaioberrien hilkortasunarekin bukatzea, epidemiak desagerraraztea, mendetasuna sortzen duten substantzien gehiegizko erabilera prebenitzea eta tratatzea, trafikoaren ondoriozko heriotzak eta lesioak murriztea, osasun-estaldura unibertsala, sexu eta ugalketa osasuntsuak eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen alderdiek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: kalitatezko hezkuntza, doakoa eta bidezkoa, goi mailako hezkuntzara iristeko aukera-berdintasuna, garapen jasangarrirako hezkuntza, hezkuntza-instalazio egokiak desgaitasunak dituzten pertsonentzat, ikaskuntzarako ingurune seguruak eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen alderdiak puntu hauekin erlazionatuta daude, besteak beste: emakume eta nesken aurkako diskriminazio eta indarkeria forma guztiak desagerraraztea, erantzukizun konpartitua, emakumeen parte-hartze betea eta efektiboa; aukera-berdintasuna eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen puntuek alderdi hauekin dute lotura, besteak beste: ura zentzuzko prezioan eta erraz eskuratzeko bidea izatea modu unibertsal eta bidezkoan, saneamendu- eta higiene-zerbitzuak eskuratu ahal izatea, uraren kalitatea kutsadura murriztuta, baliabide hidrikoen erabilera efizientea, kudeaketa integratua eta abar.



Helburu honek alderdi hauek jorratzen ditu, besteak beste: zerbitzu energetiko irisgarri, fidagarri eta modernoak eskuratzeko aukera unibertsala, energia berriztagarrien proportzioa handitzea, eraginkortasun energetikoa eta azpiegitura energetiko nahiz teknologia garbietara zuzendutako inbertsioa eta ikerketa sustatzea.



Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: hazkunde ekonomikoa, dibertsifikazioa, modernizazio teknologikoa eta berrikuntza, lan txukuna, enplegu bete eta produktiboa, ekintzailtza, mikroenpresak eta ETE-ak sustatzea, eta abar.



Helburu hau erdiesteko alderdi hauek jorratuko dira, besteak beste: azpiegitura fidagarri, jasangarri, erresiliente eta kalitatezkoak, industrializazio inklusibo eta jasangarria, industria txikiek eta beste enpresa batzuek finantza-zerbitzuak eskuratu ahal izatea, prozesu industrial garbiak eta ingurumen aldetik arrazionalak, IKT-en eskuragarritasun unibertsala, eta abar.




Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: pertsona guztien inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa, aukera-berdintasuna, berdintasunaren aldeko zerga- eta ordainsari-politikak nahiz babes sozialekoak, migrazio eta mugikortasun ordenatua erraztea eta abar.




Helburu hau lortzeko, alderdi hauek jorratuko dira, besteak beste: etxebizitza eta oinarritzko zerbitzu egoki, seguru eta eskuragarriak izatea, garraio-sistema egoki eta jasangarriak, urbanizazio inklusibo eta jasangarria, ondare kultural eta naturalaren babesa, hirien ingurumen-inpaktua eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen alderdiek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: kontsumo eta ekoizpen jasangarria, baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera efizientea, elikagaiak alferrik ez galtzea, hondakin-ekoizpena prebenitzea, murriztea, birziklapena eta berrerabilera, enpresetan jardunbide jasangarriak sustatzea eta abar.



Helburu hau erdiesteko, besteak beste, arlo hauetan egingo da lan: kima-aldaketa gutxitzea, haren aurreko erresilientzia indartzea eta horretara egokitzeko ahalmena handitzea plangintzak, estrategiak eta planak diseinatuta eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: lehorreko jardueren eraginez itsasoan gertatzen den kutsadura eta ozeanoen azidotzea murriztea, itsas ekosistemak babestea, kostaldea eta itsas eremuak kontserbatzea eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuek puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: lehorreko ekosistemak kontserbatzea, leheneratzea eta modu jasangarrian erabiltzea erabiltzea, basamortutzea, lur eta lurzoru degradatuak lehengoratztea, biodibertsitatearen galera eta abar.



Helburu hau lortze aldera, puntu hauek jorratuko dira, besteak beste: indarkeria, tratu txarrak eta esplotazioa murriztea, ustelkeria eta eroskeria murriztea; instituzio efikaz eta gardenak, kontuak ematea; parte-hartzea eta informazioaren eskuragarritasuna eta abar.



Helburu honek jorratzen dituen alderdi batzuk puntu hauekin dute zerikusia, besteak beste: garapenerako laguntzarako baliabideak mobilizatzea eta horren inguruko konpromisoak betetzea; garapen jasangarrirako politiken koherentzia eta abar.



lido horretan, Araban nahiz EAE-n hainbat ekimen ari da abian jartzen azken urteotan, lurraldearen garapen jasangarriaren plangintzari lotuta. Ekimen horiek lan-oinarritzat hartu behar dira Laudio Udalarentzat, eta, hala dagokionean, horiekin bat egin beharko dugu edo garapen jasangarriaren arloko udal-estrategia horiekin lerrokatu. Besteak beste, honako hauek nabarmendu genitzake:



- **Euskadi Basque Country 2030 Agenda:** Euskadi Basque Country 2030 I. Agendak 2017-2020 aldia hartzen du barne, alegia, EAE-ko XI. legegintzaldiko Gobernu Programaren indarraldi bera izango du, eta Agenda beraren nahiz hura garatzen duten sektore-politiken lerrokatze eta ekarpen maila islatzen du, garapen jasangarriko 17 helburuei lotutako jomugei erreparatuta.
- **Udalsarea 2030:** Udalsarea 2030 (Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea) koordinazio- eta lankidetzazko foroa da, EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21 ekimenak dinamizatzen ditu eta kasuan kasuko ekintza-planak gauzatzen laguntzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko 186 udalerri osatzen dute, eta ahalegin guztiak norabide berean bateratzen ditu euskal udalerrietan garapen jasangarri eraginkorra lortzeko. Udalsarea 2030 sendotu egin da 2010ean, kide diren udalerriek "**Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Iraunkortasunaren aldeko Konpromisoa; Udalsarea 2030 sendotzea**" dokumentua sinatzeari esker.
- **Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza 2030:** garapen jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza 2030 eraikitzeak Arabako gizarteko hainbat erakundek (udalek, enpresek, hirugarren sektoreko erakundeek, prestakuntza-erakundeek eta abar) garapen iraunkorraren alde egiten duten lana aitortu eta bultzatzea du helburu. Aliantza irekia, borondatezkoa eta parte-hartzeari irekia da.

Jarraian, Laudio Udalak Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko hartzen dituen konpromisoak eta jomugak jasotzen dira, 2030. urteari begira.

1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA





1

POBREZIA DESAGERRARAZTEA

Pobrezia mota guztiak desagerraraztea mundu osoan

Helburuak:

- Pobrezia-egoerei erantzutea eta udaletako gizarte-baliabideen eta -laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzea errazteko eta gizarte-bazterketako egoerak kronifikatzea saihestuz.
- Udalaren baliabideak eta gizarte-laguntzak behar bezala erabiltzen direla bermatzea, gehien behar dituzten pertsonen iristeko, erakundeen arteko lankidetzak eta datuen interkonexioa bultzatuz.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzak bermatzea, pobrezia energetikoaren kontrakoak barne.
- Etxerik gabeko pertsonen arreta egitea eta etxegabeen arazoari aurre egiteko nahiz haren ondorioak arintzeko baliabideak jartzea haien eskura.
- Enplegarritasun zaila duten pertsonentzako arreta optimizatzea, gizarteratzeko eta enplegurako udal politikak koordinatuz.

Eraldaketa tresnak:

**Laguntza eta
baliabide
sozialak**

**Erakunde
arteko
koordinazioa**

**Gizarte-
bazterketako
egoerak
prebenitzea**

2030 ibilbide-orria: Landu beharreko eremu estrategikoak.

- Sostengurako laguntza programak berrikustea, egoera bereziki ahuletan daudenentzako arreta indartzeko.
- Pobrezia egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eskura dauden laguntzen eta gizarte-baliabideen arteko koordinazioa hobetzea.
- Adinekoentzako janleku soziala Laudion.
- Pobreziaren aurka modu integralean borrokatzeko plana, ikuspegi holistikotik kalteberatasun-egoerak sortzearekin zerikusia duten faktore guztiak kontuan hartuta (enplegua, osasuna, hezkuntza, adikzioak eta abar).
- Prestakuntza ematea pobrezia-egoeran edo pobrezia-arriskuan dauden pertsonen, enplegu-zerbitzu publikoekin eta inguruko enprekin koordinatuta, haien enplegarritasuna hobetzeko eta laneratzea bultzatzeko.

Planak, programak eta araudiak:

- Sostengurako laguntzak
- Pobreziaren aurkako plana Laudion
- Laneratze zailtasunak dituzten kolektiboentzako enplegu-programak
- Udal ordenantzak: pobrezia arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako hobariak eta salbuespenak





2

Gosea amaiaraztea, elikagaien segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

Helburuak:

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea, berrikuntzaren, belaunaldien arteko ordezkapenaren eta sektore barruko nahiz sektore arteko lankidetzaren bidez.
- Nekazaritza ekologikoa eta nekazaritza-praktika erresilienteak sustatzea, eta hurbiltasun-zirkuituak sortzen laguntzea.
- Landa-eremuei azpiegitura eta zerbitzu egokiak ematea, hiri-ingurunearen pareko bizi-baldintzak bermatzeko biztanleriari eusteko.

Eraldaketarako tresnak:

**Hurbiltasun-
zirkuituak:
tokiko
produktua**

**Landa-
despopulazioa
geldiaraztea**

**Lehen
sektorearen
lehiakortasuna
eta
iraunkortasuna**

2030 ibilbide-orria: Landu beharreko eremu estrategikoak.

- Udalaz gaindiko finantzazio aukerak aprobetxatzea (Europako funtsak ardatz hartuta), nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearen lehiakortasuna hobetzeko eta landa-ingurunean nekazaritza- eta baso-lurak modu iraunkorrean erabiltzeko.
- Lehen sektorean arreta handiagoa ipintzea ekintzailetzari laguntzeko politikei dagokienez, sektorea gaztetzeko eta belaunaldi-erreleboa egiteko bitarteko gisa.
- Erakundeekin lankidetzan aritzea landa-despopulazioa geldiarazteko estrategietan, gure landa-eremuetan bizitza-proiektuak garatzen laguntzeko eta landa-ingurunean behar diren oinarrizko zerbitzuak emateko.
- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean praktika iraunkorrak sustatzea eta hurbiltasun-zirkuituak garatzen laguntzea, lehen sektorearen, merkataritzaren eta ostalaritzaren arteko lankidetzaren bidez.
- Udal eragileek eta hirugarrenen eragileek (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, teknologia-zentroak eta abar) garatutako sektore-politiken arteko koordinazioa indartzea.

Planak, programak eta araudiak:

- Laudioko Landa-eremuaren Garapen Integralerako Plana
- Onura publikoko mendietan eta udal jabetzako mendi publikoetan larreen aprobetxamendua arautzen duen Erregelamendua
- Txikizkako Merkataritzaren Plan Estrategikoa
- Udal titulartasuneko bideen erabilera arautzeko udal ordenantza
- Kaleko salmenta arautzen duen ordenantza
- Nekazari gazteentzako laguntza-programa



3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



Guztionez eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

Helburuak:

- Komunitate-ingurunean osasuna sustatzea, adin guztietan jarduera fisikoa, bizi-ohitura osasungarriak hartzea eta elikadura osasungarria sustatuta.
- Adineko pertsonen zahartze aktibo eta osasungarria bultzatzea, kolektibo horren ongizatea bermatuko duten politikak aplikatuta.
- Osasunaren zaintzan pertsonen erantzunkidetasuna sustatzea.
- Osasun publikoa bultzatzea, erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako formulak ezarrita, eta koordinazio soziosanitarioa bultzatzea.
- Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteen artean batez ere.

Eraldaketaarako tresnak:

**Zahartze
aktiboa**

**Kirol-jarduera
sustatzea**

**Erakundeen
arteko
koordinazio
soziosanitarioa**

2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Eskola-adineko kirola sustatzeko plan espezifiko bat zehaztea, Laudioko kirol-kluben eta -elkarteen jarduera babestuta, udalerriko ikastetxeekin lankidetzan.
- Kirol-, kultura- eta aisialdi-asoziazionismoa babestea, aisialdi osasuntsua eta bizimodu osasungarriak sustatzeko bide gisa.
- "Laudio Hirugarren Adinekoekin Lagunkoi" Plana diseinatzea eta abian jartzea, adinekoek behar dituzten azpiegiturak, zerbitzuak eta jarduerak definitzeko.
- #Mugilaudio programa, gizarte aktiboa lortzeko, batez ere adinekoen artean.
- Osakidetzarekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, arretan koordinazio sozio-sanitarioa indartzeko.
- Adikzio mota berriak (teknologiak, kirol-apustuak eta abar) kontuan hartuko dituen Laudioko Adikzioen Plan berri bat abian jartzea.
- Sexu-aniztasuna aitortzea eta hezkuntza eta osasun afektibo-sexuala hobetzeko ekimen berriak sustatzea, batez ere, gazteen artean.

Planak, programak eta araudiak:

- "Laudio Hirugarren Adinekoekin Lagunkoi" Plana
- #Mugilaudio programa
- Eskola-adineko kirola sustatzeko plana
- Adikzioen III. Tokiko Plana
- Alkoholaren eta tabakoaren promozioa, publizitatea, salmenta eta kontsumoa kontrolatzeko neurriak arautzen dituen udal ordenantza

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA





4



Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

Helburuak:

- Biztanle guztiek hezkuntza- eta kultura-ekipamendu eta -zerbitzu modernoak, kalitatezkoak, bidezkoak eta inklusiboak eskura eta eskuragarri dituztela bermatzea.
- Garapen iraunkorrerako, elkarbizitzarako, kulturartekotasunerako eta dibertsitaterako hezkuntza sustatzea gizarteko esparru guztietan.
- Udalerriko gizarte eta ekonomia esparru guztietan euskararen erabilera handitzea.
- Enpresaren eskaerei eta pertsonen enplegarritasunari erantzungo dien bikaintasuneko lanbide-heziketa sendotzea, bereziki erreparatuta laugarren industria-iraultzaren erronkei.
- Bizitza osoan zeharreko hezkuntza indartzea, arreta berezia ipinita langabeen prestakuntzan, haien laneratzea eta enplegarritasuna hobetzeko.

Eraldaketaarako tresnak:

**Bizitza osoan
zeharreko
hezkuntza**

**Balioetan
heztea**

Euskara

**Kultura eta
kultura-
sorkuntza
sustatzea**

2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Laudioko ikastetxeekin lankidetzan aritzea baterako hezkuntza-programak garatzeko, honako balio hauek azpimarratuta: garapen iraunkorra, elkartasuna, dibertsitatea eta abar.
- Langabeentzako zein lanean daudenentzako prestakuntza-planak, enplegarritasuna hobetzeko.
- 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako plaza-eskaintza sendotzea eta handitzea haur-eskoletan.
- Laudioko Kultura Plan Estrategikoa definitzea, udalerriko kultura-zerbitzuen eskaintza eta kultura talde nahiz elkarteekiko harremana hobetzeko, baita Laudioko hezkuntza eta kultura hobetzeko funtsezko kultura-guneak (antzokia, liburutegi berria, ikasgelak eta abar) hornitzeko ere.
- Audioarrek euskara ikasi eta erabiltzearen aldeko apustua, saltokietan zein zerbitzu-enpresetan, erakunde publikoekiko harremanetan eta beste alor guztietan euskara erabiltzearen alde eginda.
- Laudioko ondare etnografikoa balioan jartzea, euskal kulturaren eta audioarron balioei eusteko eta transmititzeko bide gisa.

Planak, programak eta araudiak:

- Kultura Plan Estrategikoa
- Euskara Plana
- Euskararen erabilera arautzeko udal ordenantza
- Laudio HAZI programako prestakuntza-ibilbideak
- Ikastetxeetako inbertsio-programa

5 GENDER BERDINTASUNA



Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

Helburuak:

- Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko balio-aldaketa sustatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea arlo sozioekonomiko guztietan (lana, hezkuntza, erantzunkidetasuna familia-bizitzan, politika, hirigintza eta abar).
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea, genero-indarkeria prebenitzea eta biktimen arreta integrala hobetzea.

Eraldaketarako tresnak:

**Berdintasunean
heztea**

**Berdintasun
osoa eta
eraginkorra
politika
guztietan**

**Emakumeen
aurkako
indarkeriaren
prebentzioa**


2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Laudioko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana diseinatzea, abian jartzea eta bete-betean aplikatzea, berdintasunaren ikuspegi holistikoa aintzat hartuta.
- Laudioko ikastetxeekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea gazteen artean tratatu onak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.
- Inguruko gizarte-eragileekin lankidetzan aritzea sexu-dibertsitatea aitortzeko ekimen berriak sustatze aldera, batez ere, gazteei begira.
- Emakumeen Kontseilua, emakumeak gure gizartean duen rolari balioa emateko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako jarduerak garatzeko gune gisa.
- Laudio Udaleko ordezkari politikoak eta teknikariak sentibilizatzea, politika publiko guztietan eta udal programa guztietan genero-ikuspegia txertatzeko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala eta eraginkorra ematea.
- Udalerriko emakumeentzako puntu beltzak erabat ezabatzea.

Planak, programak eta araudiak:

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ordenantza
- Emakumeen Kontseilua
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako laguntzak

6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA





Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

Helburuak:

- Udalaz gaindiko erakundeekin lankidetzan aritzea ura hornitze-, saneatze- eta arazte-azpiegitura hidraulikoak garatu eta egikaritzeko, eta, udalaren eskumenekoak direnean, zuzenean egikaritzea.
- Uraren kalitatea bermatzeko eta kutsadurari aurre egiteko politika hidrikoa bultzatzea.
- Sektore ezberdinetako ur-kontsumoa arrazionalizatzea, ur-baliabideen erabilera efizientea eginda.
- Ura kudeatzeko eredu integratuen alde egitea, politika hidriko efizienteagoa lortzeko eta ura berdintasunean eskuratzea errazteko.

Eraldaketarako tresnak:

Ur-baliabideen
kudeaketa eta
kontrola

Azpiegitura
hidrikoak
hobetzea

2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Hondakin-uren Basaurbeko araztegi berria (HUA) martxan jartzea, hiri- eta industria-isurketak tratatzeko.
- Laudioko saneamendu- eta hornidura-sarea pixkanaka hobetzea, auzoetan eta landa-eremuetan fokua jarrita.
- Isurketei buruzko udal ordenantza aplikatzea, enpresekin lankidetzan arituz, baimendutako gehienezko isurketa-balioak betetzeko behar diren inbertsioak egin ditzaten.
- Isurketak kontrolatzeko plana betetzea, Laudioko uraren kalitatea bermatzeko.
- Herritarrak eta Laudioko eragile sozioekonomikoak ur-kontsumoa arrazionalizatzeko sentsibilizatzea.
- Laudioko ur-hornidurako zerbitzuaren iraunkortasuna hobetzea, Urbide - Arabako Ur Partzuergoan integratuta.

Planak, programak eta araudiak:

- Laudio udalerrian edateko ura hornitzeko udal zerbitzuaren araudia
- Udal saneamendu-sarera egindako isurketen ordenantza
- Isurketak kontrolatzeko plana
- Udal saneamendu- eta hornikuntza-sarean inbertsioak egiteko programa

Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat

Helburuak:

- Energia-kontsumoa murriztea eta udalerriko energia-iturrien artean energia berriztagarriaren proportzioa nabarmenki handitzea.
- Enpresak eta herritarrak sentsibilizatzea energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko proiektuak gara daitezen, Udalaz gaindiko erakundeekin elkarlanean arituta.
- Garraioan, gasolioa pixkanaka ezabatzea, garraioaren gasifikazioa eta ibilgailu elektrikoen erabilera bultzatuta.

Eraldaketarako tresnak:



2030 - Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Energia-pobreziaren aurka borrokatzeko ekintzak abian jartzea, udaletako laguntza eta baliabide sozialen programen esparruan.
- Udal espazioen energia-kontsumoa monitorizatuko duen energiaren inguruko udal informazio-sistema bat martxan jartzea, energia modu efizienteagoan erabiltzeko esku-hartzeak bideratu ahal izateko.
- Udal ibilgailuen flota progresiboki elektrifikatzea.
- Udal instalazio eta ekipamenduetan energia garbi eta berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak ezartzea (biomasa, eguzki-energia eta abar).
- Energia aurrezteko kultura sustatzea eta energia garbiak erabiltzea herritarren eta udalerriko enpresen artean, sentsibilizazioaren, hezkuntzaren eta araudiaren bidez.
- Laudion ibilgailu elektrikoaren erabilera hedatzeko behar den azpiegitura indartzea, gasoliozko ibilgailuen partez elektrikoen erabilera sustatzeko.

Planak, programak eta araudiak:

- Energiaren inguruko udal informazio-sistema
- Argiteria publikoa berritzeko inbertsio-programa
- Energiaren Tokiko Plana
- Udal ibilgailuen flota elektrifikatzeko inbertsio-programa

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA





Guztionezko hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

Helburuak:

- Langabezia-tasa murriztea eta laneratzea bultzatzea, zailtasun gehien dituzten kolektiboen artean bereziki.
- Udalerrian enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa bermatuko duten lan-ereduen alde egitea, laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna sustatuta.
- Prestakuntza eta birziklatze profesionala sustatzea enprekin, unibertsitate-zentroekin eta lanbide-heziketako zentroekin lankidetza estuan arituta, eta prestakuntza duala indartuta nahiz enpresetan eta erakundeetan praktikak egitea bultzatuta.
- Ekintzailetza babestea, batez ere, gazteen artean.
- EGE-a eta gizarte ekonomiako enpresak sustatzea.

Eraldaketaresko tresnak:

**Lanbide-
heziketa eta
unibertsitate-
heziketa duala**

**Ekintzailetza
sustatzea**

**Laneratzea eta
etengabeko
prestakuntza**

**Enpleguaren
kalitatea eta
segurtasuna**

2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Tokiko Garapen Agentzia eraldatzea eta birbideratzea, gure ETE-ei, hiri-negozioei eta pertsona ekintzaileei laguntzeko gune bihurtzeko.
- Prestakuntza dualeko programak diseinatzea, eskualdeko enpresak eta lanbide-heziketako ikastetxeak tartean sartuta.
- Enpresen arteko lankidetza sustatzea eta sinergiak eta baliabide partekatuak bilatzea, enpresak hazteko bide gisa.
- Langabeen enplegarritasuna hobetzeko eta inguruko enpresetan sartzeko prestakuntza-eta enplegu-programak abian jartzea.
- Ekintzailetzari eta enpresa-sustapenari laguntzeko zentro bat abian jartzea, besteak beste, enpresa-hazitegiarako, *coworking*-erako, *networking*-erako, enpresa-garapen lehiakorrerako eta ekintzaile-kultura bultzatzeko espazioak eta jarduerak barne hartuta.
- Udalerriko enprekin lankidetzan aritzeko mahaia, enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzeko (behin-behinekotasuna, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta abar).
- Tokiko merkataritza sustatzeko estrategiak etengabe berrikustea, udalerrian enplegua eta jarduera ekonomikoa suspertu eta sortzeko bide gisa.
- Gizarte Ekonomiako I. Plana diseinatzea eta abian jartzea, elkarte solidarioekin, hirugarren sektoreko erakundeekin eta eskualdeko udalekin elkarlanean.

Planak, programak eta araudiak:

- Ekintzailetza babesteko programak eta baliabideak
- Enplegu-planak eta -programak
- Merkataritza Biziberritzeko Plana - PERCO
- Laudioko Udalaren Lan Eskaintza Publikoa

9

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK





Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea

Helburuak:

- Laudioko enpresen berrikuntza-prozesuak (teknologikoa nahiz kudeaketa arlokoak) bultzatzea eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzea.
- Laudion hazkunde ekonomiko iraunkorra sustatzea, udalerrirako estrategikoak diren sektoreetan (industria, merkataritza eta abar) proiektu berriak bultzatuta.
- ETE-ei eta autonomoei laguntzea, eta zailtasunak dituzten enpresei ere berregituratzen laguntzea.
- Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea teknologien aukerak aprobetxatzeko, lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.
- Industriaguneak eta jarduera ekonomikoko eremu modernoak, irisgarriak eta enpresen jarduerarako egokiak garatzearen alde egitea.

Eraldaketa-erako tresnak:

**Berrikuntza
teknologikoa
eta ez
teknologikoa**

**Lankidetz
berrikuntzako
ekosistemako
eragileekin**

**Industria-
azpiegituren
kudeaketa**

2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:


- Gure ETE-ek profil berritzaile handiagoa izateko neurriak bultzatzea, SPRI-rekin, Innobasque-rekin eta beste berrikuntza-eragile batzuekin batera.
- Arabako eta EAE-ko berrikuntza-ekosistemako eragileekin (erakundeak, unibertsitateak, prestakuntza-zentroak, zentro teknologikoak, enpresak eta abar) lankidetzak aktiboan aritzea, berrikuntza bultzatuko duten baliabideak euren esku jartzeko.
- Industrialdeak eta jarduera ekonomikoaren kontzentrazio-eremuak hobetzea, enpresen beharretara egokituta eta jasangarritasun-, erresilientzia-, inklusio- eta irisgarritasun-irizpideen arabera.
- Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea "Aiara Industrial Lab" proiektuan, Laudioko eta inguruko industria-jarduerari laguntzeko.
- Udalerriko enpresak sentibilizatzea prozesu eta praktika jasangarriak hartzearen onurei buruz (ekonomia zirkularreko proiektuak, iraunkortasun-txostenak, ingurumen-kudeaketarako sistemak eta abar), eta prozesu osoan haien alboan izatea.

Planak, programak eta araudiak:

- Laudio Hazi programaren urteko plan operatiboa
- Aiara Industrial Lab – Arabako Foru Aldundia buru duen proiektua
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra - HAPO

10 DESBERDINTASUNAK

MURRIZTEA



Herrialde bakoitzaren barneko zein herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

Helburuak:

- Pixkanaka berdintasun handiagoa lortzera bideratutako politikak eta neurriak hartzea (fiskalak, sozialak, etxebizitza arlokoak eta abar), egoera ahulenean dauden biztanleria-sektoreen gizarteratzea errazteko.
- Hirugarren Sektore Sozialak gizartea eraldatzen eta gizarteratzen laguntzen duen sektore gisa duen eginkizuna indartzea, eta boluntariora-lana bultzatzea.
- Dibertsitatea eta elkartasuna modu positiboan kudeatzea bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen ari diren erronken aurrean (immigrazioa, errefuxiatuak, erlijio-dibertsitatea eta abar).
- Egoera ahulean dauden lurraldeentzako laguntza eta lankidetzaren indartzea, herrialdeen arteko desberdintasunak hainbat formularen bidez murrizteko.

Eraldaketa-erako tresnak:

**Fiskalitatea eta
politika
inklusiboak**

**Elkartasuna eta
garapenerako
lankidetzaren**

2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Udal ordenantza fiskalak egokitzea, tasa eta prezio publikoetako hobariak etengabe txertatuta eta berrikusita, egoera txarrean dauden taldeei laguntzeko.
- Etxebizitza libreen eta babestuen nahiz jabetza- eta alokairu-erregimeneko etxebizitzaren arteko konbinazio egokia sustatzea, kolektibo guztiek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Erkidegoan, Estatuan nahiz nazioartean lankidetzan aritzeko esparru geografiko eta sektorial bat definitzea, eta lurraldeen arteko desberdintasunak murriztera bideratutako baliabideak areagotzea.
- Politika publiko guztietan (hirigintza, enplegu publikoa, gizarte-politikak eta abar) aukera-berdintasunaren ikuspegia txertatzea.

Planak, programak eta araudiak:

- Udal lankidetzarako estrategia geografikoa eta sektoriala
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra - HAPO
- Audio Udalaren ordenantza fiskalak

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK





11



Hiriak nahiz giza kokaguneak inklusibo, seguru, erresiliente eta jasangarriak izan daitezela lortzea

Helburuak:

- Lurralde-plangintza jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailerako estrategia bat sustatzea.
- Hiri-birgaitze, -berroneratze eta -berrikuntza erresilientea sustatzea.
- Mugikortasun-dinamikak eraldatzea, sistema ez kutsagarrien aldeko apustua eginda, aldi berean, auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko.
- Hazkunde jasangarrirako eredu bat garatzea udalerriaren nortasun-ikur gisa: hiri-garraio jasangarria, energia garbiak eta ekonomia zirkularra.
- Natura-ondarea babestea eta berdegune berrien aldeko apustua egitea.

Eraldaketarako tresnak:

**Mugikortasun
jasangarria**

**Hiri-plangintza
inklusiboa eta
adimenduna**

**Natura-ondarea
eta
berdeguneak**


2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Laudioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikustea, udalerriaren errealitatera eta eraiki nahi dugun etorkizunera egokitzeko, jasangarritasun-, inklusibitate- eta erresilientzia-irizpideen arabera, besteak beste. Plangintza horrek hainbat elementu jaso beharko ditu, hala nola, genero-berdintasuna, lurzorua erabilera desberdinak, ekipamenduak eta berdeguneak hornitzea eta abar.
- Epe labur, ertain eta luzerako Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana diseinatu eta aplikatzea, udalerriko mugikortasun-dinamikak eta -ereduak eraldatzen laguntzeko.
- Hiri Plangintzaren Aholku Batzordea berritzea eta martxan jartzea, udalerri-eredu jasangarria sustatzeko funtsezko elementu gisa.
- Udalerriko ingurumen-inpaktu negatibo nagusiak (kutsadura atmosferikoa, zarata eta abar) ezagutzeko, kontrolatzeko eta prebenitzeko estrategia definitzea.

Planak, programak eta araudiak:

- Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana - HMIP
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra - HAPO
- Zarata eta bibrazioen udal ordenantza

12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK



*Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea***Helburuak:**

- Ekonomia zirkularraren alde egitea, hondakinen sorrera nabarmen murriztuta prebentzio-, murrizketa-, birziklatze- eta berrerabilpen-jardueren bidez.
- Ingurumenaren aldetik eredugarria den administrazio publiko baten eraketan aurrera egitea.
- Informazio eta prestakuntza bizkorra eta eraginkorra eskaintzea, kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen, bizimodu jasangarriagoak sustatze aldera.
- Enpresa-eremuan, eta bereziki industria- eta merkataritza-eremuan, produkzio-praktika arduratsu eta iraunkorrak sustatzea eta balio-kate osora zabaltzea.

Eraldaketarako tresnak:

**Birziklapena eta
ekonomia
zirkularra**

**Erosketa
publiko berdea**

**Ekoizpen
arduratsu eta
iraunkorra**

2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Erosketa publiko berritzailerako ereduak garatzea, tokiko ekonomiari lagunduz ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa eraginkorragoa eta jasangarriagoa izan dadin.
- Udal kontratazio publikoko klausulak berrikustea, jasangarritasunaren ikuspegia aintzat hartzen duten plegu berdeak garatzeko.
- Foru Aldundiko eta EAE-ko erosketa-zentraletan integratzea.
- Birziklapena sustatzeko kontzientziazio-kanpainak bideratzea eta ingurumena zein udalerriko garbitasuna errespetatzen dituzten jarrerak garatzea, eta enpresak nahiz gizarte-eragileak partaide eginez.
- Tokiko merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lankidetzan aritzea, arduraz kontsumitzeko eta birziklatzeko ekintzak bultzatze aldera.
- Hurbiltasun-zirkuituen garapena bultzatzea, lehen sektorearen, merkataritzaren eta ostalaritzaren arteko lankidetzaren bidez.

Planak, programak eta araudiak:

- Garbiketaren eta hondakin-bilketaren udal ordenantza
- Erosketa publiko berdea eta berritzailea
- Ostalaritza sektorean hondakin gutxiago sortzeko programak

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA





13



Presazko neurriak hartzea klima aldaketari eta horren ondorioei aurre egiteko

Helburuak:

- Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea.
- Aurrezpena, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatzea lurralde- eta hiri-plangintzako tresna guztietan, baita garatu beharreko gainerako araudi, programa eta politiketan ere.
- Herritarrak sentsibilizatzea larrialdi klimatikoaren egoerari eta klima-aldaketaren inpaktu negatiboari buruz.

Eraldaketarako tresnak:




2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Klimaren aldeko Ekintza Estrategia bat egitea, klima-aldaketarekin zerikusia duten faktore guztiak kontuan hartuz eta horiei erantzuna emateko jarduerak definitzeko, EAEko udalerrri guztietako kalteberatasun- eta arrisku-analisiaren emaitzetan oinarrituta.
- Jardunbide egokiak zabaltzea, herritarrek eta enpresek klima-aldaketaren ondorioak arintzeko aukera izan dezaten.
- Erakunde eta eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, batera diseinatzen diren jarduerak inpaktu handiagoa izan dezaten.

Planak, programak eta araudiak:

- Klimaren aldeko Ekintzarako Udal Estrategia
- Energia Jardunerako Tokiko Plana
- Garapen jasangarrirako sentsibilizazio- eta hezkuntza-programa 2030

14 ITSASPEKO BIZITZA



Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak zaintzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriaren bidean

Helburuak:

- Itsas kutsadura prebenitzea eta nabarmenki murriztea, lehorretik itsasora egiten diren isurketak modu jasangarrian kudeatuz.

Eraldaketarako tresnak:

**Isurketak
murriztea eta
kontrolatzea**

2030 ibilbide-orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Isurketei buruzko udal ordenantza aplikatzea, enpresekin lankidetzan arituta, baimendutako gehienezko isurketa-balioak betetzeko behar diren inbertsioak egin ditzaten.
- Laudioko uraren kalitatea bermatzeko eta isurketak kontrolatzeko plana betetzea.

Planak, programak eta araudiak:

- Udal saneamendu sarera egindako isurketen ordenantza
- Isurketak kontrolatzeko plana

15 LEHORRREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA






Lehorreko ekosistemak babestea, leheneratzea eta modu jasangarrian erabil daitezela sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lurrak leheneratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria

Helburuak:

- Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea, lurzoruen erabilerak erregulatuta.
- Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumena babesteko eta kontserbatzeko duten erantzunkidetasunean aurrera eginda.
- Biodibertsitatea babestea.
- Degradatutako edota kutsatutako lurzoruak leheneratzea eta berreskuratzea, industrializazioak Laudioko lurzoruan dituen ondorio kaltegarriak ezabatzeke.

Eraldaketarako tresnak:



2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:


- Laudioko mapa berde bat diseinatzea, gure berdeguneak eta naturaguneak identifikatzeko, duten balioa aitortzeko eta etengabe hobetzeko.
- Udalerriko berdeguneen eta naturaguneen kudeaketa jasangarria ziurtatzeko beharrezkoak diren tresnak definitzea.
- "Erastun berdearen" proiektua garatzea, udalerriko balio natural handiko eremuak identifikatzeko eta kontserbatzeko, eta herriko periferiako lur degradatuak berreskuratzeke.
- Erakundeekin lankidetzan aritzea landa-eremuetako despulazioa geldiarazteko estrategietan, gure landa-eremuetan bizitza-proiektuak garatzen laguntzeko.
- Lurzoru kutsatuak kudeatzeko eta berroneratzeko estrategia bat egitea, udalerriko enpresek jardura ekonomikoa duten lurzoruak deskutsatzeari dagokionez dituzten betebeharrak azpimarratuz.

Planak, programak eta araudiak:

- Laudioko mapa berdea
- Onura publikoko mendietan eta udal jabetzako mendi publikoetan larreen aprobetxamendua arautzen duen erregelamendua

16

BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOK





16

Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, justiziarako sarbidea erraztea jendarte osoari, eta kontuak ematen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

Helburuak:

- Giza eskubideen errespetuan eta pluralismoan oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, dibertsitatearen balio positiboari buruzko sentsibilizazio-programak bultzatuta.
- Administrazio publiko irekia, gardena eta efikaza bultzatzea.
- Hurbiltasuna, bizkortasuna eta efikazia sustatzea audioarrei ematen zaien arretan.
- Herritarrei tutoretza eskaintzea udal zerbitzuak teknologia berrien bidez erabil ditzaten.
- Kargudun publikoen jokabide ona ziurtatzea.

Eraldaketaarako tresnak:

**Gardentasuna
eta herritarren
parte-hartzea**

**Hurbiltasuna
eta herritarren
arreta**

**Bizikidetzak,
aniztasuna eta
elkartasuna**

2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Izapideak sinplifikatzea eta udal zerbitzuak nahiz izapideak teknologia berrietara egokitzea, bereziki, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren zein urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren xedapenei dagokienez.
- Erabateko gardentasuna udal kudeaketan, gobernuaren ekintzari buruzko kontuak ematen dituen atari bat martxan jarrita eta aldian-aldian eguneratuta (urrekontua, planak, programaketa abar).
- Erregelamendu berri bat nahiz herritarrek parte hartzeko estrategia bat definitzea eta aplikatzea, audioarrak udal plangintzari eta zerbitzuak emateari buruzko hausnarketan inplikatu direla bermatzeko.
- Laudion bizikidetzan, dibertsitatean eta kultura-aniztasunean aurrera egiteko programak eta jarduerak diseinatzea.
- Herritarren bizikidetzako eta segurtasuneko ingurune bat erraztea, auzoetara orientatutako polizia-ereduen bidez.

Planak, programak eta araudiak:

- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren araudia
- Gardentasunaren aldeko ituna
- Herritarrek parte hartzeko moduak arautzen dituen ordenantza
- Udal Antolamendurako Araudia
- Bizikidetzaren, dibertsitatearen eta segurtasunaren aldeko ituna



17 HELBURUAK

LORTZEKO ALIANTZA



Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea

Helburuak:

- Aliantzen garapena bultzatzea herrian, foru erakundeetan, autonomia erkidegoan, Estatuan, Europan nahiz nazioartean, Laudion eta planetan garapen jasangarriarekin lotutako ekimen estrategikoak abian jartzeko.

Eraldaketarako tresnak:


**Erakundeen
arteko aliantzak
eta
koordinazioa**

2030 bide- orria. Landu beharreko eremu estrategikoak:

- Aktiboki parte hartzea Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzari 2030, Udalsarean eta garapen jasangarriaren helburuekin bat datozen proiektuak garatzeko beste lan-espazio batzuetan.
- Sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak-formulak bilatzea (erakundeak, enpresak, unibertsitateak, prestakuntza-zentroak, elkarteak eta abar), Audioko garapen jasangarri integrarean aurrera egiteko.
- Udal kontratazioa eta udal dirulaguntzak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea.

Planak, programak eta araudiak:

- Udalaren ordezkartza-plana.



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO